



...euskara salbu ikasi arte bizerrik ez egin\*

## Altzako Euskararen Plan Estrategikoaren ondorioak Hezkuntza, kultura, gazteen aisia eta kirola

### Euskararen presentzia eta erabilera.

Altza herri euskalduna denik ezin esan daiteke. Estatistika datuak hor daude: ez euskaldunen kopurua % 80a da. Hala ere, euskararen ezagutza handitzen ari da geroz eta haur eta gazte euskaldun gehiago ateratzen baita ikastetxeetatik. Hala ere, ereduaren sistemak ez ditu bere helburu guztiak lortu Altzan. Oro har, A eta B ereduaren gazteek ez dute eskuratzen euskaraz bizitzeko adinako gaitasunik. Murgiltze ereduak ikasleek euskaraz bizitzeko gaitasun egokia eta kalitatezkoa lortuko dutela ziurtatzen duela ikusita, gurasoak eredu honen alde egiten ari dira nabarmen.

Administrazioa eta hezkuntza arloko eragileak beharrei erantzuten ari diren arren (IRALE programa, materialak euskaratu, ikastetxeen normalkuntza planak...), ezinezkoa da oraindik hezkuntza osoa euskaraz jasotzea: adibidez, lanbide hezkuntzan eta akademietan. Gainera, irakaskuntzako eragile altzatarren artean dagoen komunikazio faltak ere ez du laguntzen arazoei irtenbidea ematen. Koordinaziorako gune bat behar da, non ikastetxe guztietako ikasle, guraso eta irakasleek parte hartuko duten eta indarrak bilduko dituzten euskararen normalizazio bidean aurrera eraman beharreko ekimenetan

Baina, euskaraz bizitzeko gaitasuna duten gazteek ez dute bizitza soziala euskaraz egiten (lagunartean, kirolean, senideekin...). Honetan asko eragiten du famili giroan euskarak presentziarik ez izateak. Gazteek euskara eskolarekin lotzen dute (elementu ezkor gisa), eta ez aspektu afektibo-sozialekin. Beraz, euskara eskolatik kalera atera behar da, bai jolas girora, bai akademietara, baita kaleko ohiko kultur edota aisialdi ekintzetara ere. Bide hori hasita dago jadanik eta eskakizunari erantzun ahal izateko, aisialdia, kultura beste sektoreetako eragileen arteko harremanak sakondu beharko dira.

Erakundeen baitan ere geroz eta gehiago dira euskaldunak, baina urriegia da erabilera barne mailako esparrutan (eskutitzak, bilerak...), zein kanporakoetan (irudia, hizkuntza paisaia, iragarkiak, zerbitzua...). Zaila da boluntarioez osatutako erakunde hauek beren kideak euskara ikasi eta erabiltzera behartzea. Beraz, beren egoerari egokitutako normalkuntza planak egin eta aplikatzen lagundu beharko zaie, euskara lan hizkuntza bilakatu arte.

Helduen kasuan, euskaltegienezko oraindik lana badela argi ikusten da. Handitzen ari den euskal komunitate artatzeko hizkuntza ezagutu behar dela badakite altzatarrek. Gainera, euskara ezagutu eta erabiltzea balio erantsi bat izaten ari da eta izango da. Baina, sarritan, gogoz kontra ematen da euskara ikasi eta erabiltzeko urratsa.



...euskara salbu ikusi arte bizarrik ez egin\*

## Sentiberatasuna.

Euskaraz bizi nahi dutenekiko sentiberatasun urria eta euskara politikarekin lotzeko joera nabarmentzen da helduen artean. Maiz, euskararen aldeko eskakizunak inposaketatzat hartzen dira eta ez guztion hizkuntz eskubideak errespetatzeko aldarri moduan. Beraz, euskara bertakoa eta guztiona dela ikustaraztea ezinbestekoa da.

Honetan badu zer egin handia administrazioak eta, zehazki, Donostiako Udalak. Bertako politikari eta agintariak euskara eguneroko jardunean erabili behar dute eta hori ikusarazi gizarteari. Gainera, jadanik badiren euskararako laguntzen berri hobe eman behar du.

Era berean, euskararen alde egiten diren ekimen zabal, ludiko eta integratzaileak (Korrika, euskal astea, Kilometroak...) mesede handia egiten diote sentiberatzeari. Gazteekin gertatzen den moduan, helduek euskara gertuago ikusiko dute arlo ludikoan bere presentzia handituz gero: kirola eta euskarazko kultur ekimenak. Hala ere, aipatzekoa da alor hauek hedabideetan tarte zabala duten arren euskaraz oso gutxi egiten dela.



"Alzan Bizarain..."

**BIZARAIN**

...euskara salbu Rural arte bizarrik ez egin"

## Altzako Euskararen Plan Estrategikoaren ondorioak Lan mundua, zerbitzuak, merkataritza eta ostalaritza

### Euskararen presentzia eta erabilera.

Langileak euskara ikastea eta enpresek euskararen normalkuntzan inbertitzea baldintzatzen duten faktore nagusiak baliabide ekonomiko falta, enpresen eta langile autonomoen lan ordutegi txarra eta atomizazioa dira. Sektoreko adin tarte nagusiak (35-50 urte bitartean) ere ez ditu gauzak errazten. Era berean, langile euskaldunen artean alorreko terminologiaren ezagutza urria denez, barne zein kanpo funtzionamenduan ez da euskararik erabiltzen. Horregatik, nahitaezkoa da alorreko enpresentzat propio eraturako euskara ikastaroak abian jartzea Altzako euskaltegietan. Beste tresna batzuk ere proposatzen dira: gremioaren oinarritzko terminologiadun hiztegitxoak, "euskaraz badakigu" moduko txartela, *Hobetuz* bezalako instituzioen menpeko hezkuntza iraunkorreko erakundeek euskara lehentasuneko formaziotzat hartzea... Guztia instituzioen laguntzaz, egungo laguntza ekonomikoak urriak baitira, eta euskara ikasi eta erabiltzeko aitzakia ekonomikorik izan ez dadin. Hori bai, laguntzen inguruko informazioa ondo zabaldu behar da

Sektoreko hainbat gremio nahikoa euskaldunduta daude dagoeneko, eta horrek ere lagun dezake euskararen sustapenean. Era berean, kalitate eta hobekuntza prozesuetan euskara kontuan hartzen ari da. Kontratazio berrietarako aldeko faktore da gazteek formazioa euskaraz jasotzea.

Sektore osoak inplikarazi behar dira euskalduntzean. Altzako enpresen hizkuntz egoerari buruzko ikerketak egin beharko lituzkete alorreko elkarteek eta baita euskarazko ikastaroak antolatu eta bidaltzen duten dokumentazioan euskararen presentzia ziurtatu ere.



"Altzan Bizarain..."



...euskara salbu ikusi arte bizarrik ez egin"

## Sentiberatasuna

Euskarak aurrera egin badu ere, bezeroen eskaera ez da nabarmen hazi oraindik, herritarrak ez baitira ohartu euskararen eta lan munduaren arteko loturaz. Euskalduntzea inbertsioztat baino kostutzat dute enpresek, ez baitzaio errentagarritasunik ikusi egundaino. Ordea, geroz eta gazte gehiagok ezagutu eta erabiltzen dute euskara eta hauek izango dira etorkizuneko bezeroak. Euskarazko eskaera gora egiten ari da eta aurrerantzean ere areagotuz joango da. Horregatik, euskararen aldeko sentiberatzea ikuspuntu komertzialetik egin behar da, herritar euskaldunengan euskararen erabilpena bultzatuz (euskara ezagutu eta erabiltzeko beharra eraginez enpresei) eta enpresen artean zabalduz euskara erabiltzen duten erakundeek enpresa berriztatzaileen, bizien eta eraginkorren irudia islatzen dutela, eta zerbitzu eta irudi komertzial osoagoa ematen. Zerbitzua bezeroak nahi duen hizkuntzan eskaini ahal izatea balio erantsia da. Hain zuzen ere, Altzako enpresa eta zerbitzuetan jarrera aldatzen ari da pixkanaka-pixkanaka, geroz eta gehiago erabiltzen da euskara. Enpresen aldekotasunak nabarmen eragiten du herritarren sentiberatzea areagotu dadin.

Ordea, hizkuntzaren erabilpen politikoak oso eragin negatiboa du. Era berean, administrazio publikoen hizkuntz politika ez da nahikotzat jotzen. Euskara modu testimonialean erabiltzen dutenez, jendeak ez du sentitzen euren agintariak euskararekiko sentiberatuta daudunik. Agintariak euskararen erabileran eredugarri izan beharko lukete eta aldian-aldian euren erreferentzialtasuna erabili herritarroi zuzendutako sentiberatze-kanpainak egiteko.

Altzan, 2004ko otsailean.